

135. FITXA EMPLEAVERDE+ programaren esparruan, trantsizio ekologikoarekin lotutako gaitasunak eskuratzeko edo hobetzeko dirulaguntzak, norgehiagoka-araubidean

Nori zuzendua: pertsona juridiko publikoak; pertsona juridiko pribatuak, irabazi-asmoa dutenak edo ez dutenak; irabazi-asmoa duten edo ez duten pertsona juridikoen taldeak, publikoak nahiz pribatuak.

Sarbide-esteka: [Empleaverde+ programaren 2025eko dirulaguntzen deialdia - Fundación Biodiversidad](#)

Erreferentziazko araudia: [Fundación Biodiversidad erakundearen 2025eko maiatzaren 27ko Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, trantsizio ekologikoarekin lotutako gaitasunak eskuratzeko edo hobetzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia argitaratzea onartu zen, Empleaverde+ programaren esparruan, Europako Plus Gizarte Funtsak kofinantzatuta](#)

Eremuak: Enplegua.

Zenbatekoa: 13.227.202,51 €.

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/07/28ko 23:59ean.

Laburpena

Langabeei, langileei eta ekintzaileei gaitasunak eskuratzen edo hobetzen lagunduko dieten jarduketak garatzeko proiektuak laguntzea da deialdiaren xedea, pertsona horien lan-merkatutarako sarbidea errazteko eta birziklatze profesionaleko prozesua sustatzeko, horrela, merkatuak eskatzen dituen trebetasun eta ezagutza berrietara egokitzen laguntzeko.

Proiektuen gaiak bat etorriko dira natura-ondarea, biodibertsitatea, basoak, itsasoa zein ozeanoak, ura, energia, klima-aldaketa, hiri-eremua eta kutsadura prebentzioa babesteko politikekin, estrategiekin eta planekin, baita demografia-erronkari eta lurralde-despopulazioari aurre egiteko politikak ere, betiere, genero-ikuspegia aintzat hartuta.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Proiektuak **trantsizio ekologikoaren** esparruan – estrategietan eta planetan nahiz merkatuko alde z aurreko azterketetan edo analisietan- hautemandako egungo edo etorkizuneko trebakuntza-beharretan oinarritu beharko dira, baita enplegua sortzeko edo lehendik dauden postuak birbideratzeko eta

eraldatzeko aurreikuspenei lotutako prestakuntza-premiak nabarmentzen diren beste edozein esparrutan ere.

Proiektuak biodibertsitatea kontserbatu eta kudeatzeko eremuari edo klima-aldaketa arintzeari eta klima-aldaketara egokitzeko eremuari lotutako **lehentasunezko ardatz** hauetako baten barruan kokatuko dira:

- Hiri-birnaturalizazioa.
- Natura-ondarearen eta eremu babestuen kudeaketa.
- Leheneratze ekologikoa.
- Natura-turismo jasangarria.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategi jasangarriak (nekazaritza, abeltzaintza, erlezaintza).
- Arrantza eta akuikultura jasangarriak.
- Baso-kudeaketa jasangarria.
- Eraikinen birgaitze energetikoa eta eraginkortasun energetikoa.
- Kontsumo txikiko etxebizitzak eraikitzea.
- Hiri-ingurunea: hirigintza eta mugikortasun jasangarriak.
- Energia berriztagarrien ekoizpena.
- Larrialdi klimatikoak: muturreko gertakarien aurkako babesa eta erantzuna. Baso-suteen aurkako borroka.
- Garraiobide elektrifikatuak.

Proiektuak **jarduera-ildo** hauetako batean kokatu beharko dira:

- **1. lerroa. Langileak.** Langileak enplegu berderako gaitasunetan trebatzea. Lehentasunezko ardatzen barruan dauden eta lan-merkatura hobeto egokitzen, birziklapen profesionala sustatzen eta ekintzailtza berdea bultzatzen duten gaitasunak eta kualifikazioak eskuratzeko edo hobetzeko trebakuntza-proiektuak.
- **2. lerroa: Langabeak.** Kontratazio aukerak dituzten langabeak enplegu berderako gaitasunetan trebatzea. Langabeen enplegarritasuna hobetzeko proiektuak, lehentasunezko ardatzen esparruan. Gaikuntza-proiektuak edo kontratazioa barne hartzen duten trebakuntza-proiektuak bakarrik planteatu ahal izango dira.

Gauatzeko epeak

Proiektuak gauatzeko epea **7 eta 24 hilabete artekoa** izango daiteke.

Laguntzen zenbatekoa

Proiektu bakoitzeko eskatutako gutxieneko zenbatekoa **150.000 eurokoa** izango da, eta gehienekoa **2.000.000 eurokoa**.